

AÑES

— ARABA / ÁLAVA —

Araba eta Burgos arteko muga aldean dago Añes, Salvada mendilerroaren eta Peña Anguloren magalean, bi horietan banatzen baitituzte, batetik, Arabako Aiara harana, eta bestetik, Burgoseko Losako harana. Aiarako kuadrillaren barruan dago herria eta 55 kilometro inguru daude Añesetik Gasteizera, eta 15 kilometro inguru Amurrora. Gasteiztik abiatuta, honetara egin behar da errepidez: N-622 edo Altubeko autobia hartu, Bilborako bidean, eta Ametzaga igaro ostean, eskuinetara irten eta A-624 errepidean zehar, A-68 autobidearekin paralelo, Amurrio eta Artziniega alderantz jo. Aretxa eta Menagarai igarota, errepide batek Retes de Llanteno, Erbi eta Lexartzu herrietara eramango gaitu, eta, azkenik, Añesera iritsiko gara, errepidea Burgosko lurretan sartu aurretik.

La localidad de Añes se encuentra situada en los límites de la provincia de Álava con Burgos, a los pies de la Sierra Salvada y de la Peña de Angulo, que separan el valle de Ayala y el burgalés valle de Losa. Se encuentra situada a unos 55 km de Vitoria y a unos 15 km de Amurrio, y pertenece al municipio y a la Cuadrilla de Ayala. Para llegar al pueblo hay que tomar la carretera N-622 o Autovía de Altube en dirección a Bilbao y, después de Ametzaga, salir a la derecha por la carretera A-624, paralela a la autopista A-68, yendo en dirección a Amurrio y Artziniega. Tras pasar Aretxa y Menagarai, una salida por la carretera conduce a los lugares de Retes de Llanteno, Erbi, Lejarzo, y, por último, Añes, antes de seguir su camino hacia tierras burgalesas.

Herriaren ikuspegi orokorra / Vista general del pueblo



Itxura batean, Aiara haraneko bazter malkartu eta zailenetako batean badago ere, Añes Salvada mendilerroaren magalean kokatuta, Burgos ondoan eta Gaztelarako pasabidean egonik, –baita Nerbioi ibaitik hurbil Amurrio aldean, eta Cadagua ibaitik hurbil Artziniega aldean ere–, joan-etorri handiko eta asentamendu ugari tokia izan da historiaurretik. Dokumentuetan jasota dator monasterio bat egon zela –geroago, San Bizente eliza–, Diego Porcelos Gaztelako kondeak Okako San Felix monasterioari emana. Monasterio hura, gainera, Donemiliaga Kukullako monasterioaren menpe geratu zen 1049. urtean; beraz, Añeskoa ere haren menpe egon zen. Handik urte batzuetara, 1095eko izkribuetan, Laudioko eliza sagaratu zutenean, *Hannes* izeneko eliza bat dator aipatuta Aiarako haranean; baita eliza bera altxatu zuten urteetan, 1128 eta 1130ean. Don Santxo gotzainak eskaini zuen eliza –Funesko Don Santxo Kalagorriko gotzain izandakoak, seguruenik–. Micaela Portillak 1961ean argitaratutako liburu bateko datuak dira horiek denak; 1766ko beste liburu batean oinarrituta, eta orduko hartan Añesko apaiza zenak, frai Jose de Sollak, egiaztatuta. Apaiz horrek aurkitu omen zuen, behinola aldare nagusia eraitsi behar izan zutenean, arketa bat, eta, berorren barruan, pergamino batean, eliza eskaini zuten garaiko datuak.

Aunque Añes se encuentra en una de las zonas más abruptas y a primera vista inaccesibles del valle de Ayala, su situación junto a la Sierra Salvada como paso a Castilla por Burgos –y en las cercanías del río Nervión a su paso por Amurrio y el Cadagua por Artziniega–, hace que desde la prehistoria fuera un lugar de tránsito y asentamiento. Se documenta la existencia de un monasterio –o iglesia de San Vicente–, que fue donado por don Diego Porcelos, conde de Castilla, al monasterio de San Félix de Oca –que, a su vez, quedaría incluido en el de San Millán de la Cogolla– en 1049, por lo que el de Añes dependería de éste. Poco después de este hecho, en 1095, se cita el lugar de *Hannes* como iglesia existente en el valle de Ayala durante la consagración de la iglesia de Llodio; y también en la erección de su propia iglesia, entre 1128 y 1130, dedicada por el obispo don Sancho –seguramente el obispo calagurritano don Sancho de Funes–. Esta información fue recogida por Micaela Portilla en 1961 de un libro de fábrica datado en 1766 y refrendado por el entonces cura de Añes, fray José de Solla, que notificaba el descubrimiento de una arqueta al desmontar el altar mayor, en cuyo interior se hallaba un pergamino con los datos de la fecha de dedicación de la iglesia.

San Bizente eliza / Iglesia de San Vicente

AÑESKO GAUR egungo eliza XVIII. mendean berreraiki zuten, eta antzinako eliza erromanikoari forma eta egikera aldatu zioten orduan. Burualdean, ekialdean, ate berri bat ireki zioten, eta XIX. mendeko atari batez babestu zuten. Aldarea, berriz, mendebaldean ezarri zuten, tenplu erromanikoko hastiala zegoen lekuan. Burualde berri horren ondoan jarri zuten sakristia, eta haren barruan igartzen da oraindik leiho erromaniko bat egon zela, zerratuta eta gaur egungo hormen pinturak estalia.

Tenpluaren kanpoko aldean, hegoaldeko horman, kanpai-hormaren ezkerretara eta apaizetxearen gainean, bost harburu erromaniko ageri dira. Lehenengo biak ia erabat hondatuta daude. Dena dela, ematen du arraboldun modiloak izan zituztela, hirugarren harburuak dituenak bezalakoak, baita maskara obalatu bat ere, ez oso ebaki sakonen idez tailatua. Harburu horien guztien gainetik erlaitz bat dago; xake-irudiz eta ebakidun bola zorrotzez apainduta. Iparreko orman harburu gehiago daude, eta era-

LA ACTUAL IGLESIA DE AÑES es una reconstrucción del siglo XVIII, cuando la primitiva iglesia románica vio alterada su forma y disposición. Fue entonces cuando el acceso a la iglesia se realizó mediante la apertura de la puerta en la cabecera, en el lado este, cobijada por un pórtico del siglo XIX, y se colocó el altar al Oeste, en lo que fue el hastial del templo románico. Junto a esta nueva cabecera se dispuso la sacristía, en cuyo interior se vislumbraban restos de una ventana románica, tapiada hoy y oculta por la pintura que cubre los muros de este espacio.

En el exterior del templo, en el muro sur, a la izquierda de la espadaña y sobre la casa cural, se conservan cinco canecillos románicos. Los dos primeros están casi destruidos, y podrían haber mostrado modillones de rollos, como el tercero, y una máscara ovalada y de talla meramente incisa. Sobre estos canes se aprecia una cornisa decorada con motivos de ajedrezado y bolas apuntadas con incisiones. En el muro norte el número de canes es mayor, y



Harburuak / Canecillos

gin mozarabiarreko modiloak dituzte, seguruenik Done-miliagako tenpluarekin zeukaten loturak eraginda. Horiez gainera, beste harburu lau batzuk ere badaude, bat edo bat bola batez apainduta. Iparreko horma honetan badaude erlantz zatiak, xake-irudiz apainduak. Beste zati batean, dena dela, landare-irudiak ageri dira; elkarrri lotuta, txirikordatu-ta ageri diren hostoak dira apaingarri.

Edonola ere, Añesko parrokiak duen aztarna erromaniko nagusia portada da. 1982ko uztailean, Micaela Portillak Añesera egindako bisitaldian –Gasteizko ondareari buruz idatzitako *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria* laneko VI. atala osatzeko, Aiarako parroketan egiten ziharduen azterketetarako–, apaizetxeko horma bat, tenpluaren hegoaldean, estaltzen zuen igeltsua kentzean, Arabako multzo erromaniko zaharrenetakoa aurkitu zuten. Erdi-puntuko portada bat da, bi arkibolta eta deskarga-arku apainduak ditu, erlantz eta pilastra lau batzuen gainean. Deskarga-arkua goialdean dago eraikita, baina abiapuntuan, baketoi biren artean, ebakita, bost petaloko apaindura ageri da. Goiko arkiboltan, berriz ere, bost petaloko loreak, oraingo honetan erliebean eginak eta zurtoinek inguratuta. Barrualdeko arkiboltan bost aingeruren irudi baldar landu gabea; hegoak harrian zulatuta, buru baldarra,

muestran de nuevo modillones de influencia mozárabe, probablemente debido a su relación con San Millán, además de canes lisos y alguno decorado con una bola. En esta cara norte también hay restos fragmentados de cornisa con decoración de ajedrezado, aunque una parte muestra decoración vegetal de hojas ondulantes entrelazadas.

Sin embargo, el resto románico más importante que conserva la parroquia de Añes es la portada. En julio de 1982, durante la visita de Micaela Portilla a Añes –dentro de la ruta que realizaba por las parroquia de Ayala en las labores de campo del tomo VI del *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*–, al eliminar un enlucido de yeso de la pared dentro de la casa cural, situada en el lado sur del templo, se descubrió uno de los conjuntos románicos más antiguos de la provincia. Se trata de una portada de arco de medio punto, dos arquivoltas y sobreacto decorados, que apoyan sobre una cornisa y pilastras lisas. El sobreacto está destruido en su parte superior, pero en los arranques se ve, entre dos baquetones, una decoración incisa de flores de cinco pétalos. La arquivolta exterior muestra de nuevo flores de cinco pétalos, esta vez en relieve y enmarcadas por tallos. La arquivolta interior acoge cinco ángeles muy rudimentarios, con las alas incisas y ondulantes des-

aurpegiera iluna eta esku handiak bularraldean. Inposta, berriz, honetara dago apainduta: ezkerretara, zazpi petaloko lore haragitsuak, eta eskuinetara, zurtoin txirikordatuak erroleoak eratuz. Eskuineko ate-zangoan gurutze bat zulatuta harrian. Multzo osoaren gainean, gorago, lau harritan bitxilore bana zirkulu batek inguratuta.

Tinpanoa da, portada honetako elementu guztien artean garrantzitsuena, Araban diren lauretatik bat –bat Zanbranan dago, eta beste bi Armentian–, eta bakarra Euskal Herrian ikonografiari dagokionez. Tinpano horretan, Jatorrizko Bekatua dago irudikatuta; Adam, eskuinetara eta Eva, ezkerretara, biluzik eta mahats orri batez estalita, harrian zulatutako erlieberdi batean irudikatuta. Irudiaren erdian Bizitzaren Arbola ageri da; zutabe formako enborra du, harroina eta, adarretan, fruituak zintzilik. Enborraren inguruan bildurik Sugea –deabrua–, ahoan Evari emango dion sagarra dauka, eta Evak ezker eskuz heltzen dio, eta eskuinez mahats-orriari heltzen dio, genitalak estaltzeko. Irudi sinpleegia, primitiboa da Evarena, obra antzinakoa den adierazgarri: buruaren goialdean bolumenta du ileak, baina atzean apur bat marraztuta baino ez dago; aurpegi eskematikoa dauka, beso luzeak, esku handiak, bularrak

plegadas, cabeza tosca, gesto serio y manos grandes sobre el pecho. La imposta se decora, a la izquierda, con flores muy carnosas de siete pétalos, y a la derecha con tallos ondulantes que se entrelazan y forman roleos. En la jamba derecha se aprecia una cruz incisa. Sobre el conjunto, más arriba, hay cuatro piedras con una decoración de una margarita cada una, inscritas en círculos.

El elemento más interesante de esta portada es el tímpano, uno de los cuatro existentes en Álava –junto con el de Zambrana y los dos de Armentia–, y ejemplar además único en el País Vasco en cuanto a su iconografía. En este tímpano se recoge la escena del Pecado Original, donde Adán, a la derecha, y Eva, a la izquierda, aparecen desnudos y tapando su desnudez con una hoja de parra, en un semirrelieve con incisiones. En el centro se ve el Árbol de la Vida, con un tronco en forma de columna, con basa, y ramas de las que cuelgan frutos. Alrededor del tronco aparece enroscada la Serpiente –el demonio–, que lleva en su boca una manzana que entrega a Eva, quien la recoge con su mano izquierda, mientras que con la derecha sostiene la hoja de parra con la que tapa sus genitales. La figura de Eva se representa ingenua, primitiva, señal de la antigüedad de

Tinpanoa. Jatorrizko Bekatua / Tímpano. Pecado Original



oso markatuta, eta hanka laburrak. Adamen irudiak ere antzeko egikera dauka: eskuin eskuz heltzen dio mahats-orriari, eta ezkerrean ezkerrean gainean du jarrita –Adamek sagarrari haginka egin zionekoa irudikatuz, gertakari latza eta egindako bekatuaren sinbolo.

Irudiok nola dauden eginda eta nola dauden jarrita kontuan harturik, eta portadako erdi-puntuko arku aintzat harturik, dena XII. mendearen lehen erdian eginda dagoela esan daiteke. Bat datoz data horiek M. Portillak arestian aipatutako dokumentuak jasotako datuekin; beraz, Araban den eraikin zaharrenetakoa da. Izan ere, lurraldean diren eraikin erromaniko zaharrenak pasabide zail baina seguruan zeuden lekuetakoak dira, Añesko honen moduan, orduko sasoi hartan ez baitziren guztiz bukatuta musulmanen erasoak. Tinpano honetako ikonografia eta egikera bat datoz ondoko Burgosen, Losa eta Menako haranetan azaltzen diren estilo-korronteekin. Losako San Pantaleon elizan, adibidez, portada gaineko leihoan, bada Jatorrizko Bekatua eta Adamen ahokada irudikatzen dituen kapitela bat; gauza bera gertatzen da Sioneseko kapitela batean, edota Menako Vallejo herriko elizaren portadan, XII. mendearen amaieran edo XIII.aren hasieran eginak. Eliza horiek guztiak sasoi berekoak dira, eta Kantauritik Gaztelako lautadetarako pasabidean eraiki zituzten, iristeko zailak ziren parajeetan.

Testua eta argazkiak: REA

la obra, con el cabello con volumen en la parte superior de la cabeza, pero solamente esbozado en el fondo, de rostro esquemático, brazos largos, manos grandes, pechos muy marcados y piernas cortas. La figura de Adán es de factura similar: sosteniendo la hoja de parra con la mano derecha y con la izquierda en la garganta –en el llamado “bocado de Adán”, el difícil trago y la conciencia del pecado cometido.

La factura y disposición de estas figuras, así como el arco de medio punto de la portada, permiten fechar este conjunto en la primera mitad del siglo XII, coincidiendo con la fecha anotada por M. Portilla en el documento arriba citado, convirtiéndose en uno de los más antiguos de Álava. De hecho, los ejemplares románicos más antiguos de la provincia corresponden a lugares de paso difícil pero seguro, como éste de Añes, en una época aún no del todo libre de la amenaza musulmana. La iconografía y ejecución del tímpano vinculan a esta localidad con corrientes estilísticas de los cercanos valles de Losa y Mena, en Burgos. En la ermita de San Pantaleón de Losa se conserva, en la ventana sobre la portada, un capitel con el tema del Pecado Original y el bocado de Adán; lo mismo ocurre con un capitel de Siones o la portada de Vallejo de Mena, fechadas en torno al final del siglo XII o comienzos del XIII. Todas con el factor común de ser iglesias antiguas situadas en caminos de paso desde el Cantábrico a las llanuras de Castilla, en zonas de difícil acceso.

Texto y fotos: REA

Bibliografía / Bibliografía

GÓMEZ GÓMEZ, A., 1996, pp. 86; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, pp. 101-102; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 505; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1987, p. 20; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, I, pp. 323, 329, II, p. 860; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 42-43, fig. 128; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 23, 44-45; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, pp. 42, 49, 52; MARTÍNEZ-TORRES, L. M., 2004, pp. 52, 87, fig. 67; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 42, 46-47, 51, 63, 72; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1988, pp. 248, 250-251, fig. 132-137.